

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak ia 3 milioi bideratu ditu Doneztebeko osasun-zentro berria eraikitzeko

*Oinarrizko Osasun Eremuan 5.315 pertsona artatzen dira*

Asteazkena, 2017.eko maiatzak 31

Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu du gaurko bilkuran. Horren bidez, Osasunbideko zuzendari kudeatzaileari Doneztebeko osasun-zentro berriaren lanak kontratatzeko baimena ematen dio, 3 milioi euro inguruko aurrekontuarekin. Oinarrizko eremu osoak 5.315 osasun-txartel ditu esleituta, eta horietatik, 899 pediatria-adinekoak dira.



Neska bati arreta medikoa ematen.

Aurrekontuan barne hartzen dira eraikuntza-lanak berak (2.873.762 euro), obra-zuzendaritza eta segurtasun eta osasun koordinazioa (54.241 euro). Gastua hiru aurrekontu-ekitaldira egotziko zaie: 2017 (407.550 euro), 2018 (2.343.409 euro) eta 2019 (177.043 euro).

### Zentroaren ezaugarriak

Doneztebeko osasun-zentroa eraikin berria izango da, solairu batekoa, 1.400 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin, eta horietatik, 1.250 m<sup>2</sup> erabilgarriak izango dira. Lanak 2017. urte honetako azken hiruhilekoan hasia eta 2019ko lehen hiruhilekoan amaitzea aurreikusita dago.

Zerbitzu hauek emango ditu: lehen mailako arreta, erretinografia, erradiologia eta errehabilitazioa. Azken hirurak eskualdean bakarrik emango dira. Laguntza-sailak erabilera anitzeko 1 areto, 1 erradiologia areto eta 1 errehabilitaziorako gimnasio izango ditu. Horrez gain, 16 kontsulta izango ditu (3, familia-medikuntzakoak; 1, pediatriakoak; 4, erizaintzakoak; 2 laguntza berezikoak; 1, gizarte-lanekoak; 1 larrialdietarako areto; 1, kirurgia txikikoa; 1, ateratze eta proba osagarrietarako areto; 1, estimulazio goiztiarreko kontsultakoa, eta 1, albaitaritza-bulego). Laguntza-sail hau, harrera, langile eta instalazioen eremuekin osatuko da.

Guztira, 4 mediku orokor, 1 pediatra, 5 erizain, 1 gizarte-langile, 3 administrari eta Landa-eremuko Larrialdi Zerbitzuko 3 erizain izango dira lanean.

Azkenik, adierazi behar da oinarrizko eremu honek leku hauetan kontsultategiak ere badituela: Elgorriaga, Beintza-Labaien, Urrotz, Saldias, Ituren, Eratsun, Ezkurra eta Zubieta.